

4. ildoak: 17-23 URTE BITARTEKO GETXOTARREI GIDABAIMENA ATERATZEKO AZTERKETA EUSKARAZ EGITEAGATIK DIRULAGUNTZAK EMATEA

1.- HARTZAILEAK

Eskatzaileak, Getxon erroldatutako 17 eta 23 urte bitarteko gazteak izango dira (**1999-2005 bitartean jaiotakoak**, biak barne), gidabaimena ateratzeko azterketa teorikoa euskaraz egin dutenak.

2.- BETE BEHARREKO BALDINTZAK

2.1.- Eskatzaileak gidabaimena ateratzeko azterketa euskaraz egin duela ziurtatu beharko du.

2.2.- *Gidabaimena euskaraz kanpainan parte hartu duen Getxoko autoeskolaren batean atera beharko da, gidabaimena (ikus zerrenda udal webgunean).*

2.3.- Eskaria aurkeztu orduko, matrikula ordainduta eduki beharko da.

2.4.- Dirulaguntza eskatu ahal izateko azterketa eginda izan behar da. Azterketa teorikoa 2021ean edo 2022an egindakoa beharko du izan eta horri dagozkion ordainagirik 2021ekoak edo 2022koak beharko dute izan.

2.5.- Dirulaguntza hauek bateragarriak izango dira beste edozein erakunde publikok zein pribatuk ematen dituenekin, baina dirulaguntza guztien artean ezin izango da jaso matrikularen zenbatekoa baino gehiago.

3. DIRULAGUNTZA KOPURUAK

Matrikulak lagunduko dira baina ez tasak; laguntzen esparrua hau izango da:

- Azterketa teorikoa euskaraz egiteagatik eskatzaileak, **gehienez, 100 euro jasoko ditu.**
- Azterketa teorikoa euskaraz egiteagatik gazteek jasotzen duten dirulaguntza behin bakarrik jaso ahal izango dute.

4. AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

4.1.- Dirulaguntza eskaera

Dirulaguntza eskaera - Euskara Zerbitzua izeneko inprimakia beteta (ikus eranskina), kontu korrontearen zenbakia (**IBAN kodeari dagozkion 24 digitu**) jasota utziz.

4.2.- Gastuen ordainagiriak

Gidabaimena ateratzeko, teorikoan edota praktikoan, eskatzaileak izandako **gastuen jatorrizko ordainagiriak** (matrikula, azterketa tasak eta abar).

Zerga betebeharrak egunean izatea: eskatzaileak besterik adierazten ez badu, Getxoko Udalak ofizioz ikuskatuko du eskatzaileak ez duela zorrik Gizarte Segurantzarekin, Bizkaiko Ogasunarekin eta Getxoko Udalarekin.

Zerga-datuez gain, Getxoko Udalak gidabaimena euskaraz ateratzeko egindako azterketari buruzko datuak eskatu ahal izango dizkio Trafiko Zuzendaritza Nagusiari.

Eskatzaileak kontsulta hauen guztiak edo zati batzuk ikuskatzearen kontra dagoela adierazi ahal du eskaera orrian bertan. Aurka dagoela adierazten badu eskaera elektronikoan erantsi beharko ditu eskatzen zaizkion dokumentuak.